

Euskal Herrian bizitzeko erabakia hartu du Arantxa Sasiainek, debekuen gaineratik

Errefuxiatu arrasatearrak ez du onartuko Amienseko asignaziora desterratzerik

Hur Gorostiaga / Baiona

Arantxa Sasiain errefuxiatuak, Frantziako administrazioak ezarritako debekuen gaineratik, Euskal Herrian bizitzeko hautua egin duela adierazi zuen atzo. Presondegi zigorra beterik, libre gelditzerakoan Amiensen bizitzera behartu dute, Baionatik 1.000 kilometrorra. Berak, ordea, Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aldarrikatzen du, eta ez du desterrurik onartuko.

PARISKO auzitegiek ezarritako zigorra osoki beterik, maiatzaren 7an Fleury Merogisetik libre atera zen Arantxa Sasiain. Berehala Baionara itzuli —han ditu familia, lagunak eta lanbidea— eta preso egon ondoren bizitza normala egiteko xedez itzuli zela adierazi zuen. Horretarako, Baionako Suprefeturan aurkeztu eta bertan bizitzeko beharrezko agiriak galdegin zituen.

Horren ordez, Euskal Herrian bizitzeko debekua jakinarazi zioten maiatzaren 25ean, Barne Ministerioak Frantziatik kanporatua izateko agindua hartua zuela adieraziz. Errefuxiatu Politikokoaren Agiria izanik, Frantziak Espainia ez zen hirugarren Estatu baten aukera aztertu bitartean, berriz, Baionatik 1.000 kilometrorra asignatu zioten egoitza, Amiens hirian.

Bi euskal errefuxiatu gehiago daude egoitza asignazioarekin

■ **BESTE** bi euskal errefuxiatu dira egun Arantxa Sasiainen egoera berean daudenak, errefuxiatu estatutua izateari esker «Guardia Zibilaren esku ezarri ez dituztenak, baina auzirik eta mugarik gabeko zigorrera kondenatu dituztenak», Yolanda Molina abokatuak atzo azaldu zuenez. Faustino Villanueva Herrera 1995 urtean presondegi zigorra bete ondoren aske utzi ordez, Vesoul eskualderara asignatu zuten. Geroztik Frantziako Ipar ekialdean hiru urtez sei poliziz inguratutako bizi izan da. Orain urtebete eta erdi,



Amienseko egoitza asignazioa hautsi eta Baionan egin zuen prentsaurrekoa Arantxa Sasiainek. Agazkian, Yolanda Molina abokatuak eta Pette Olhagarai apezak lagundurik ageri da.

Sasiain ekainaren 9an joan zen Amienseko, eta han astelehen eta ostiraleko komisaldegian sinatu beharra jakinarazi zioten. «Lagunik gabe, etxerik gabe, familiarik gabe eta lanik gabe, ezezaguna zitzaidan hirian, Euskal Herriatik mila kilometrorra bizitzera kondenatu nahi ninduten, besterik gabe», adierazi zuen Sasiainek atzo. Kondenatu gainera, «mugarik gabeko zigorrera», Koko Abeberri Giza Eskubideen Babes Elkarteko kideak azaldu zuen gisara. «Erabaki administratiboa izanik, ez du auzitegi batek ezarritako neurrien epe mugarik,

eta urte luzez atxiki zaitzakeen egoera horretan», esan zuen Yolanda Molina abokatuak. Horrez gain, Amiensen egoitza asignatzeko arrazoirik ez egonik, «helburua kontrolpean atxikitzea balitz soilik, Baionan berdin-berdin» egin dezaketela ohartarazi zuen abokatuak.

Barne Ministerioaren erabakiaren aurka helegiteak auzibideetan ezarri baldin badituzte ere, helegitea ez da eragilea, eta ondorioz, Euskal Herrian bizitzeagatik bi urteko presondegi zigorra arriskatzen du Sasiainek. «Euskal Herrian bizitzeagatik», Gure-

ak, Baiona Errepresioaren Kontra eta Herriarekin apezken elkarrekin atzo salatu zuten.

Izan ere, 25 urte pasatu dira 1975ean Iparraldera ihes egin zuenetik. 1979 urtean bahiketa saio bat saihestu eta Juan Lopategi hil zuten atentatutik bizirik atera ondoren, espulsio, deportazio eta GALen garaiei aurre egiteko, «bizitza diskretura» iragan zen, 1994an atxilotu eta presondegiratu zuten arte. «25 urteren ondoren, oraindik ere ez diote Euskal Herrian bakean bizitzeko utzi nahi», salatu zuten.

Auzitegiak legez kanpokotzat jo ditu deportatuen Espainiaratzeak

■ **ARANTXA SASIAIN** bezala, urteotan dozenaka dira Euskal Herrian bizitzeko hautua egin eta Ipar Euskal Herrira itzuli diren euskal errefuxiatuak. Presoen kasuan zuzenki Espainiaratu badituzte ere, urteetan deportatuak eta asignatuak izandakoek Euskal Herrian bizitzeko nahia agertu dute. Baina kasurik gehienetan ezinezkoa izan zaie. 1995 urteko maiatzaren Frantziako barreiatuak ziren errefuxiatuek asignazioa hautsi eta itzuli ziren. Hauen kasuan, zenbaitzuri paperak eman badizkiete ere, beste hainbat oraino

beren egoera erregulatu gabe «toleratuak» dira.

1996 urteko maiatzaren, berriz, deportatuak itzuli ziren. Batzuk libre utzi bazituzten ere, sei Espainiaratu zituzten. Hauen kasuan, Parisko Administrazio auzitegiak kanporaketak legez kanpokotzat jo ditu. Kalte-ordainak galdegin badituzte ere, Estatuak hiru eta lau mila liberako damu-domaia (100.000 pezeta inguru) ordaindu dizkiete, deus guti, euskal herritarrek legez kanpoko moldean espainiar poliziaren esku utziak izan zirela kontuan izanik.

Miloi bat pezetako bermea ezarri diote Garbiñe Gomez, kanporatua izan eta hoge egunera

Erredakzioa / Donostia

MILIOI bat pezetako bermea ordaindu zuten atzo Garbiñe Gomez Gorrotxategiren senitartekoei (40.000 libera inguru), Algortako preso behin-behineko askatasunean gera zedin. Carlos Divar Entzutegi Nazionalako Instrukzioko 4. Epaitegiako epaileak atzo goizean ezarri zuen bermea, Entzutegiaren Gomez deklaratzaia entzun ostean.

Gogoratu behar da Garbiñe Gomez orain dela hemeretzi egun kanporatu zutela Frantziatik, eta Gironako Jonquera herrian Guardia Zibilaren esku utzi zutela. Atzo arte, baina, ez zuten epailearen aurrean deklaratzera eraman, eta egun horiek guztiak Girona, Bartzelona eta Soto del Realeko espetxeetan egin ditu. Atzo goizeko 10:00etan eraman zuten Carlos Divar epailearen aurrera, eta hark, deklarazioa hartu ostean, bermea ordaindu arteko espetxeratze agindua eman zuen. Gomez senideek arratsaldeko lehen orduetan ordaindu zuten bermea. Aipagarria da Jesus Santos fiskalak bi milioi pezetatik gorako bermea ezartzeko eskatu ziola epaileari.

Bost urte preso Frantzian

Garbiñe Gomez 1994ko azaroaren 17an atxilotu zuten Marsellako Toulon herrian. Lau egunez inkomunikatuta eduki eta Fleury Merogiseko kartzelara eraman zuten. Han bete zuen Frantzian ezarri zioten bost urteko espetxe zigorra. Hala, ekainaren 11n, zigorra osorik beteta eduki arren eta Espainian haren kontrako kausa irekirik ez egon arren, Espainiaratu egin zuten. Egund berean Pilar Mondragon ere kanporatu zuten. Kanporatu eta berehala, Gomez eta Mondragon ospitaleratu egin zituzten; Mondragon 47 egunez egindako gose grebarenatik, eta Gomez pairatzen duen gaixotasunak eragindako ahultasunagatik.

Gomez datozen egunetan egingo diote ongietorria Algortan.